

**SANTURTZIKO UDAL EUSKALTEGIA ERAKUNDE AUTONOMIADUNAREN
ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN BILERAREN AKTA
2017ko MAIATZAK 30**

Santurtziko Udaletxeko Bilera aretoan aipatutako datan goizeko hamar eta erdietan bildu da, horretarako alde aurretik Presidente jaunak hala deituta, ohiko bileran Erakunde Autonomiadunaren Artezkaritza Kontseilua eta ondorengoak agertu dira:

Presidentea: Danel Bringas Egilior jna.

Bokalak:

Itsazain Ortolatxipi Ibañez jn. Euzko Abertzaleak Udal Taldea
Cristina Senarriaga Rojo and. Euzko Abertzaleak Udal Taldea
Jonatan Sánchez Fernández jn. Sí Se Puede Santurtzi Udal Taldea
Endika García Sáez jn. EH Bildu Udal Taldea.
Janire Larrea González and. Sozialistak Udal Taldea.

Kontu-hartzaile eskuordetua: Jose Miguel Paredes Cisneros jn.

Idazkari eskuordea: José Fernando García Pañeda jn.

E.A.aren zuzendaria: Cristina García Pérez and.

Saioari hasiera eman dio Presidente jaunak deialdiko gai-ordenean dauden gaiak aztertzeko.

**1. SUEren ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN 2017ko MARTXOAREN 28ko
OHIKO BILERAREN AKTA ONARTZEA, HALA BALEGOKIO**

Bilerari dagokion akta alde aurretik bidali denez, ez da bertan irakurri eta Presidente jaunak bozketari ekin dio. Sánchez jaunak eta Larrea andreak abstenitu egingo direla adierazi dute ez baitziren bileran izan. Santurtziko Udal Euskaltegia Erakunde Autonomiadunaren Artezkaritza Kontseiluak Presidente jaunaren, Euzko Abertzaleak udal taldeko ordezkarien eta EH Bildu udal taldearen ordezkarien aldeko botoekin (4 boto) eta Sí Se Puede Santurtzi udal taldearen eta Sozialistak udal taldearen ordezkarien abstentzioarekin onartu egin du Artezkaritza Kontseiluaren 2017ko martxoaren 28ko bileraren akta.

2. SANTURTZIKO UDAL EUSKALTEGIA AUTONOMIADUN ERAKUNDEAREN BERRI EMATEA.

Kontseiluburu jaunak hitza hartu du erakundearen zenbait gai azaltzeko:

- Euskara Sustatzeko Ekintza Plana elkarrekin adosten ari dira eta, nahiz eta eztabaidarako berezko foroa Euskara eta Kultura Arloaren Batzordea izan, zirriborroa bidaliko zaie ekarpenak egin ditzaten.
- Euskaltegiak Hizkuntza Eskolaren gastu batzuk ordaintzen ditu eta hori konpontzeko asmoz ekainean Eusko Jaurlaritzako ordezkariekin batu ziren. Bilera hartan adostu zen bakoitzak kontsumitzen zuena ordaintzeko modurik egokiena sektorizazioa zela eta hala egingo da. Hori dela eta, obrak egin beharko dira.

Jarraian euskaltegiko zuzendariari eman dio hitza kontu didaktikoen berri eman dezan:

- Curriculumaren egokitzapen berria egin behar da eta irailera arte dago epea.
- Ebaluazioari eta hizkuntz eskakizunei dagokienez, hemendik aurrera euskaltegien esku geratuko da gainditzea ala ez, hau da, ikasleek ez dute kanpoko azterketarik egin beharko maila egiaztatuta izateko. Aurten B1 egingo da, hurrengo urtean B2 eta horrela guztiak izan arte.
- Aurtengo udan maila guztietako trinkoak sortzen saiatuko da eta horretarako publizitatea egingo da. Uztailean eta irailean eskainiko dira maila guztietarako.
- Hurrengo ikasturterako C2 maila eskaintzeko asmoa dago.

Larrea andreak jakin nahi izan du udako trinkoetarako zein publizitate mota egingo den. Zuzendariak esan dio kartelak jartzeaz gain, web-gunea eta panelak ere erabiliko dituztela.

3. GALDERA ETA ESKARIAK

Larrea andreak HABEren diru-laguntzei buruz galdetu du ea zergatik diren 20.000 gutxiago. Zuzendariak azaldu dio diru-laguntzen kopurua aurreko ikasturtean egindako eskola orduen arabera kalkulatzeko dela.

Sánchez jaunak hiru galdera egin ditu:

- Aurtengo inbertsio guztiak eginda dauden edo zerbait falta den egiteko.
- Aurrekontuaren betetze-egoera noiz helaraziko zaien.
- Datorren urteko aurrekontuei buruzko bilera izango dutenez, aurretik jakin nahi dute euskaltegiak zein behar izango duen.

Bigarren galderari Kontu-hartzaileak erantzun dio hileru udalekoarekin batera bidaltzen zaiela.

Lehenengoari dagokionez, azaldu du guztiak ez daudela amaituta udan egin behar direlako, klaserik ez dagoenean.

Eta hirugarrenari erantzun dio plan progresiboa dela euskaltea hobetzeko eta hurrengo urteetan jarraipena izango duela. Dena den, informazioa behar izanez gero, euskaltegira jotzeko adierazi dio, bertan emango baitiote behar duen informazio guztia.

Ez dago aztertzeko beste gairik eta bukatutzat eman du Presidente jaunak goiburuko eguneko hamarrak eta berrogeita hamabostean. Horren guztiaren fede ematen dut, Idazkari eskuordea naizenez.

Presidente
Danel Bringas Egilior

Idazkari eskuordea
Jose Fernando García Pañeda